


# LANBIDE HEZIKETAN **EKONOMIA SOZIAL** **ERALDATZAILEAREN** INGURUKO **AZOKA** BAT OSATZEKO **PROPOSAMENA**



**BETERRI**  
SARETUZ

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Departamento de Promoción  
Económica, Turismo y  
Medio Rural



**ETORKIZUNA ORAIN**  
Es futuro

Ikastetxeekin bildu ondoren ikasleak azoka presentzial batera erakartzea zaila ikusten dugu. Beraz, azoka eskualdeko eragileei (enpresa, elkarte, ikastetxe...) zuzendutakoa izatea proposatzen dugu.

Azoka presentzialak eragile desberdinen arteko harremanak sustatzeko balioko du, bakoitzak bestearen berri izateko. Hortik Azoka Ibiltaria sortzeko aukera proposatzen dugu.

Eskualdean Ekonomia Sozial Eraldatzailea oinarrian dute eragileen zerrenda osatu dugu. Bertan bakoitzaren lan esparrua zehaztu dugu. Asmoa, zerrenda hori ikastetxeetara bidali eta bakoitzak dituen beharren arabera hitzaldi eskaerak egitea da. Horrela ikasleak leku jakin batean bildu ordez eragileak joango dira ikastetxeetara.

### **Azoka presentzialerako proposamena:**

Gaur egun ekonomia sozialaz, garapen jasangarriaz, erantzukidetasun sozialaz etab. hitz egiten ohituak gaude. Hala ere, kontzeptu hauek ondo ulertzea eta praktikara nola eraman jakitea konplexuagoa da. Horregatik, urte hauetan zehar, Beterri Saretuz egitasmoaren helburuetako bat, Ekonomia Sozial Eraldatzailearen baloreak eta adibideak eskualdeko enpresa eta elkarten artean zabaltzea izan da, baita hezkuntzako eragileen artean ere.

Asmo horrekin, eta pauso bat aurrera egiteko, Ekonomia Sozial Eraldatzaileari buruzko Azoka antolatu nahi dugu eskualdean. Honako helburuak lortu nahi ditugu:

- Ekonomia Sozial Eraldatzailearen baloreak ezagutzera ematea eskualdeko eragileen artean
- ESE baloreak dituzten eragileen arteko elkar ezagutza eta elkarlana sustatzea
- Enpresa eta hezkuntza eragileen arteko zubilana egitea
- ESE ereduarekin bat egiten duten enpresa eta elkarten ikusgarritasuna sustatzea
- Eskualdean alor honen inguruan dauden baliabideak ezagutzea

*Goiz osoko saioa aurreikusten dugu, horrela antolatuta:*

**EGITARUA:**

**08:30-09:00. HARRERA ETA DOKUMENTAZIO-BANAKETA**

**09:00-09:15. AURKEZPEN INSTITUZIONALA**

- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Beterri Buruntza Mankomunitatea
- Beterri Saretuz

**09:20-10:00. GAIAREN KOKAPENA**

- Sarrera-hitzaldiak eta solasaldia
- Zer da Ekonomia Sozial Eraldatzailea? zer ulertu behar dugu horrekin?

**10:00-11:00. SOLASALDIA**

*Gaiak:*

- Pertsonak ekonomiaren erdigunean
- Jendeartearen ongizatea
- Zaintza
- Aniztasuna

**11:00-11:30. KAFEA**

Elkarlanerako unea

**11:30-13:00. ESKUALDEKO ADIBIDE ETA AUKERAK**

- Ze aukera dauden, dirulaguntzak... etabar
- Beste eredu batzuk ezagutu... Elkartek/enpresak, beraien lan egiteko modua azaldu

**13:00-13:20. GAZTEEN AURKEZPENAK: BERAIEI PROIEKTU, IDEIAK AURKEZTEKO TARTEA**

**13:20-13:30. LABURPENA ETA AGURRA**

[beterrisaretuz.eus](http://beterrisaretuz.eus)



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Departamento de Promoción  
Económica, Turismo y  
Medio Rural



ETORKIZUNA ORAIN  
Es futuro